

## Laugarrena. Izena: Erregistro Nagusia

- a) Oinarri juridikoa: DBEOren 6.1.c) artikulua: Tratamendua beharrezkoa da tratamenduaren arduradunari aplikatu beharreko legezko betebeharrak betetzeko. DBEOren 6.1.e) artikulua: Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen jardunean burututako eginkizunak betetzeko; Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua, Mahaiaren 2007ko urriaren 8ko erabakiaren bidez onetsia, 109. artikulua. (NPAO, 15. zk., 2007ko urriaren 16koa). Nafarroako Parlamentuaren Administrazioaren Antolamenduari buruzko Erregelamendua, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 1992ko azaroaren 2an onetsia (6. NPAO, 2009ko otsailaren 5koa).
- b) Tratamenduaren xedeak: barne-erabilerarako dokumentuen sarrera-irteeren kontrola eta epe-egiaztapena.
- c) Ukitutako pertsonak eta kolektiboak: dokumentuak aurkezten dituzten edo horiek bidaltzen zaizkien pertsona fisiko edo juridikoak.
- d) Datu-kategoriak:
  - Igorlea:
  - Hartzailea
  - Sarrera edo irteerako erregistro-zenbakia
  - Dokumentu-mota
  - Jatorria
  - Erregistro-data
  - Dokumentuaren data
  - Konfidentziasuna
  - Ordua
  - Laburpena
  - Barne-banaketa
  - Oharrak
  - Barne-jatorria
  - Ofizioak
- e) Hartzaile-kategoriak: ez dago lagapenik
- f) Nazioarteko transferentzia: ez dago halakorik aurreikusita.
- g) Bertan behera uzteko epea: Datuak gordeko dira Nafarroako Parlamentuko Artxiboaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko Arauetan xedatutakoaren arabera. Arau horiek 2000ko maiatzaren 15ean onetsi zituen Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, eta 2000ko ekainaren 8ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.
- h) Entitate arduraduna: Nafarroako Parlamentua. Nafarroako Parlamentuari norbere datuen eskurapena, zuzenketa, ezabaketa, eramangarritasuna, haien tratamenduaren murriztapena eta tratamendu horri aurka egitea eskatzeko eskubidea baliatu nahi izanez gero, bidezkoa denean, hori idatziz egin behar da, helbide honetara joz: Navas de Tolosa kalea, 1, 31002 Iruña. Bestela, posta elektronikoko honako helbide honetara: [dpd@parlamentodenavarra.es](mailto:dpd@parlamentodenavarra.es).



